

I. ERANSKINA

1.- GARAPENERAKO KOOPERAZIOKO PROIEKTUEI APLIKATZEKO HAUTESPEN-IRIZPIDEAK

I.- Proiektuaren edukien eta hartzaile partaideen arabera: 70 puntu.

1.- Proiektuaren koherentzia orokorra: 14 puntu.

1.1.- Koherentzia aurrez ikusitako helburu, emaitza eta jardueren artean: 2 puntu, gehienez.

1.2.- Jardueren eta inplementatzeko baliabideen arteko harremana: 3 puntu, gehienez.

- 3 puntu jarduerak, bitartekoak eta kostua zehatz-mehatz banatzen badira.

- Puntu batera arte zerrenda osoa ez bada.

1.3.- Proiektua lehentasunezko sektoreen barruan egotea: 2 puntu, gehienez.

1.4.- Jarraipen- eta ebaluazio-adierazle zehatzak, egiazta eta ebalua daitezkeenak. 5 puntu, gehienez.

- 4 puntu helburu zehatzekiko eta aurreikusitako emaitzekiko egiazta daitezkeen adierazle zehatzak adierazten badira.

- 2 puntu bakarrik aurreikusitako emaitzekiko egiazta daitezkeen adierazle zehatzak adierazten badira.

- 1 puntu adierazlean eta egiaztapen-iturriak orokorrean nahikoak izan arren, alderdiren bat argi uzten ez badute.

- 1 puntu osagarri adierazle sistemak mistoa zehazten bada, adierazle kualitatibo eta kuantitatiboekin, emaitzenekin eta prozesuenarekin.

1.5.- Erakunde eskatzailearen Plan Estrategikoaren barruan proiektua zuzenean eta esplizituki sartzea. 2 puntu, gehienez.

- 2 puntu Planaren, estrategia zehatzaren barruan integratzen bada.

- 1 puntu Planaren orokorrean sartzen bada.

2.- Proiektuaren bideragarritasun eta iraunkortasun orokorra: 10 puntu.

2.1.- Bideragarritasun tekniko eta ekonomikoa: 4 puntu, gehienez.

2.2.- Erakunde-bideragarritasuna: 2 puntu, gehienez.

- 2 puntu erakunde esangarri batek proiektua gauzatzen parte hartzen badu eta proiektuaren aurrekontu guztiaren % 5 baino gehiago ematen badu.

- 1 puntu erakunde esangarriaren bermea badago, sor daitezkeen arazoaren aurrean laguntza puntuala izateko.

2.3.- Iraunkortasuna: 4 puntu, gehienez.

3.- Proiektuan talde objektiboak eta zeharkako lerroak lehentasuna ematea: 40 puntu.

3.0.- Pertsona onuradunak proiektuaren faseetan parte hartzea: 4 puntu, gehienez.

3.1.- Talde objektiboa: ordenantzan lehentasuna duten taldeei laguntzea: 4 puntu, gehienez.

3.2.- Zeharkakoa: generoaren ikuspuntua, posizioaren eraldaketa eta gizonezkoen eta emakumezkoen artean egoera desberdina eranstea: 7 puntu, gehienez.

3.3.- Zeharkakoa: tokiko gaitasunak sendotzea: 5 puntu, gehienez.

3.4.- Zeharkakoa: partaidetza prozesuak sortzea: 5 puntu, gehienez.

3.5.- Zeharkakoa: erakundea sendotzea: 3 puntu, gehienez.

3.6.- Zeharkakoa: eskubideen ikuspegia: 7 puntu, gehienez.

3.7.- Zeharkakoa: iraunkortasun ekologikoa: 5 puntu, gehienez.

4.- Area geografikoaren eta proiektuaren ereduarekin zerikusia duten alderdiak: 6 puntu.

4.1.- Area geografikoa: 4 puntu.

- 4 puntu proiektua Saharako Errepublika Arabiar Demokratikoan eta Dominikar Errepublikan garatzen bada.

4.2.- Partzuergoak: 2 puntu, gehienez.

- 1 puntu proiektua euskal erakundeen partzuergoak egiten badu.

- 1 puntu tokiko erakundeen partzuergoak egiten badu jarduera-programa bateratuaren barruan.

II.- Tokiko erakundearekin zerikusia duten alderdiak: 18 puntu.

1.- Esperientzia: 3 puntu, gehienez.

- 3 puntu erakundea duela bost urte edo gehiago legez eratuta badago eta denboraldi horretan lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu proiektua kokatzen den sektorean.

- 1 puntu erakundea duela hiru urte baino gehiago eta bost baino gutxiago legez eratuta badago eta denboraldi horretan lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu proiektua kokatzen den sektorean.

- 1 puntu erakundea duela bi urte baino gehiago eta hiru baino gutxiago legez eratuta badago eta denboraldi horretan lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu proiektua kokatzen den sektorean.

2.- Gaitasuna eta kaudimena: 3 puntu, gehienez.

- 3 puntu erakundeak azken bost urteetan proiektu bat baino gehiago kudeatu badu, jada amaituta, proiektuaren zenbatekoaren zenbateko berdinarekin edo handiagoarekin.

- 2 puntu erakundeak azken bost urteetan proiektu bat baino gehiago kudeatu badu, jada amaituta, proiektuaren zenbatekoaren zenbateko berdinarekin edo handiagoarekin.
 - 1 puntu erakundeak azken bost urteetan proiekturen bat kudeatu badu, jada amaituta, proiektuaren zenbatekoaren %75eko zenbatekoarekin edo handiagoarekin.
- 3.- Subjektu zuzenekin tokiko erakundearen harremana: 4 puntu, gehienez.
- 4 puntu tokiko erakundeak komunitate subjektuarekin 4 urtetik gorako lan-esperientzia badu.
 - 3 puntu tokiko erakundeak komunitate subjektuarekin hiru urtetik gorako lan-esperientzia badu.
 - 2 puntu tokiko erakundeak komunitate subjektuarekin bi urtetik gorako lan-esperientzia badu.
 - 1 puntu tokiko erakundeak komunitate subjektuarekin urtebetetik gorako lan-esperientzia badu.
- 4.- Zuzeneko subjektuekin tokiko erakundearen lotura-ikuspegiak: 5 puntu, gehienez.
- 5 puntu komunitate subjektua proiektua amaitu ondoren tokiko erakundearen plan estrategikoaren barruan jasota badago.
 - 3 puntu tokiko erakundeak komunitate subjektuarekin jarduerak planteatzen baditu, proiektua amaitu ostean.
- 5.- Gizarte-ehuna sendotzeko gaitasuna: 2 puntu, gehienez.
- 2 puntu tokiko erakundea sare, koordinadora edo gizarte-mugimenduren baten kide aktiboa bada eskualdean edo estatuan, berezko nortasun juridikoarekin eta egitura demokratikoarekin.
- 6.- Erakundean generoaren ikuspuntua sartzea: 1 puntu, gehienez.
- 1 puntu erakundeak generoaren erakunde-politika badu.
- III.- Euskal erakunde eskatzailearekin zerikusia duten alderdiak: 12 puntu.
- 1.- Sozietatearen oinarria: 5 puntu.
- 1 puntu 150 bazkide baino gehiago (boluntarioak ala kolaboratzaileak) badaude edota gutxienez sentsibilizazio-ekintza bat egin bada Leioako udalerrian azken bi urteetan.
 - 1 puntu pertsona elkartuen, boluntarioen edota kolaboratzaileen artean Leioako udalerrian erroldatuak dauden pertsonak badaude.
 - 2 puntu sozietateak egoitza Leioako udalerrian badu.
 - 1 puntu osagarri kooperazioko koordinadora edo sarearen barruan sartuta badago, jokabidearen kodearekin eta jarraipen-batzordearen aldetik zigorrik ez jaso izana.
- 2.- Esperientzia: 2 puntu.
- 2 puntu erakundea duela bost urte edo gehiago legez eratuta badago eta denboraldi horretan lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu proiektua kokatzen den sektorean.

- 1 puntu erakundea duela hiru urte baino gehiago eta bost baino gutxiago legez eraturata badago eta denboraldi horretan lan-esperientzia egonkorra egiaztatzen badu proiektua kokatzen den sektorean.

3.- Gaitasuna eta kaudimena: 2 puntu.

- 2 puntu erakundeak azken bost urteetan proiektu bat baino gehiago kudeatu badu, jada amaituta, proiektuaren zenbatekoaren zenbateko berdinarekin edo handiagoarekin.

- 1 puntu erakundeak azken bost urteetan gutxienez proiektu bat kudeatu badu, jada amaituta, proiektuaren zenbateko guztiaren %100eko zenbatekoarekin edo handiagoarekin.

4.- Euskal erakundearen eta tokiko erakundearen arteko harremana aldeztetik: 2 puntu.

- 2 puntu euskal erakundeak tokiko erakundearekin hiru urte edo gehiagoko lan-esperientzia badu.

- 1 puntu euskal erakundeak tokiko erakundearekin bi urtetik beherako lan-esperientzia badu.

5.- Erakundean generoaren ikuspuntua sartzea: 1 puntu, gehienez.

- 1 puntu erakundeak generoaren erakunde-politika badu.